

JARDUERA PROTOKOLOA

SASOIKO ETA NEKAZARITZAKO LANA EUSKADIN

COVID-19



Euskadi-preben
Herri-estrategia
Estrategia de País



PCR

Hasi baino lehen, PCR bat egin behar duzu.



01

INFORMAZIOA ETA FORMAZIOA


Garrantzitsua da **INFORMAZIOA ETA FORMAZIOA** ulertzea eta zalantzarik ez izatea.



02

KUADRILLA BATEKO KIDE

KUADRILLA bateko kide izango zara, eta **EZ** duzu beste pertsona batzuekin **NAHASTU** behar.



03

SINTOMAK

SINTOMARik baduzu (sukarra, eztula, haize falta edo beste batzuk) edo kontaktu estua izan baduzu **COVIDA** duten pertsonekin, jakinarazi zure arduradunari eta/edo 900203050 telefonoan.




04

PORTAERA SOZIALEKO ARAUAK

Lanean jarraitu ahal izateko, garrantzitsua da **PORTAERA SOZIALEKO ARAUAK** betetzea, hala nola:

- Mantendu segurtasun distantzia (1,5 m).
- Garbitu eskuak sarri.
- Derrigorrezkoa da maskara erabiltzea.
- Utzi maskarak eta mukizapiak markatutako edukiontzietan.
- Estali sudurra eta ahoa ez tul edo doministiku egitean.
- Erabili behin bakarrik erabiltzeko mukizapiak.
- Saihestu kontaktu fisikoa.
- Sarbideak kontrolatuta eta pilaketarik gabe.
- Ez nahastu kuadrillen artean.
- Errespetatu ibiltzeko fluxuak.
- Zaindu zure higiene pertsonala.
- Ez partekatu janaririk eta edaririk.



05

DESPLAZAMENDUAK

DESPLAZAMENDUAK kuadrillaka egingo dira, nahastea saihestuz, eta ezarritako arauak betez.



06



LANTOKIETAN

LANTOKIETAN (landa, upategiak, pabiloiak).

- Sarbidea kontrolatuta egongo da eta modu mailakatuan egingo da. Saihestu jende pilaketak.
- Egon zure gunean.
- Ez partekatu tresnarik, erabilera indibidualerako dira.
- Garbitu eta desinfektatu tresnak.
- Garbitu eta aldatu arropa egunero.
- Garbitu eskuak arropa aldatzen duzunean eta bereizi arropa zikina eta garbia.
- Aireztatu leku itxiak.
- Garbitu laneko gainazalak.



07

OSTATUAN


- Bete **PORTAERA SOZIALEKO** arauak.
- Sarbidea kontrolatuta egongo da eta modu mailakatuan egingo da. Saihestu jende pilaketak.
- Lanera iristen zarenean:
 - > Garbitu eskuak ezer ukitu aurretik.
 - > Garbitu eta desinfektatu giltzak, mugikorra, betaurrekoak, etab.
- Ez partekatu ur eta edari botilak.
- Ez partekatu katilu, edontzi edo mahai tresnarik.
- Garbitu eskuak jan eta edan aurretik.
- **AIREZTATU** sarri, gutxienez 10 minutu egunean 2-3 aldiz.
- Atera zaborra sarri, eta ondoren garbitu eskuak.
- Saihestu arropa astintzea eta garbitzeko erabili **UR BEROA**.
- Covid-19aren kasu baieztatu edo susmagarri bat badago, jakinarazi eta bete **ETXEAN BAKARTZEKO** jarraibideak.
- Garrantzitsua da sarri erabiltzen diren gainazalak garbitzea eta desinfektatzea, hala nola ate eta leihoetako euskarri eta heldulekuak, eskutokiak, barandak, urruneko aginteak, etengailuak, sukaldeko tresnak, komunak, mahaiak, etxetresna elektrikoak, telefonoak, etab.



08

NOLA GARBITU GAINAZALAK?

- Erabili ura, xaboa edo garbitzaile arrunt bat.
- Sarri ukitzen diren gainazalak badira eta komunetan, aurreko urratsa egin eta gero, desinfektatu honela: Lixiba komertzialetatik abiatuta, honela prestatzea gomendatzen da:
 - > 50g/l-ko lixiba komertziala: gehitu 25 ml lixiba 1 litro uretan.
 - > 40g/l-ko lixiba komertziala: gehitu 30 ml lixiba 1 litro uretan.
- *Adibide moduan, "zopa koilara bat" 15 ml-ren parekoa da.
- Gainazal delikatueta %70-95 alkohola erabili daiteke.
- Administrazioak aholkatutako desinfektatzaileak ere erabili daitezke.



09